



HONDARRIBIKO GAZTEAK BERE BURUAZ BESTE EGIN ONDOREN BULLYINGARI AURRE EGITEA GOBERNUEN ARDURA DA

- ? **Irakasleei eta gurasoei prestakuntza eman behar diete**
- ? **Ikastetxe publiko eta pribatu guztiek Bullyingaren kontrako plana egin behar dute**

Hondarribiko 14 urteko gazte baten heriotzak denon ahotan jarri ditu ikasleen artean ematen diren jazarpen egoerak. Horrelako portaerak betidanik gertatu dira mota guztietako ikastetxeetan, hala publiko nola pribatuetan, dirudunen zein txiroen eskoletan, hiri handietan nola herri txikietan. Eta gainera normalizat jotzen zen, inolako garrantziarik eman gabe.

Giza eskubideen aldeko kultura sortu zenetik, lanean, familian zein eskolan gertatzen ziren ohizko jazarpen egoerak berrikusi egin dira. Izena jarri zitzairen egoera horiei eta onartezinak direla esaten hasi zen, eta hasiera batean gutxi batzuk baziren ere, portaera horiek desagertarazteko borroka hasi zen.

Tamalez, beste herri batzuetan ere Hondarribikoa bezalako gertaera latzek piztu zituzten ikertzaileen interesa. Lehenengoa Norvegiako Dan Olweus izan zen, eskolako maisua zelarik bere gelako bi ikaslek bere buruaz beste egin zutelako. Eta urtero 16 suizidio inguru gertatzen zirenez, Britainia Handiko gobernuak ikastetxe guztiek bullyingari aurre egiteko plangitza egin behar zutela inposatu zuen arau baten bidez.

STEE-EILAS en ustez, Hondarribiko Jokin gaztearen heriotza benetako mugarrria izan behar da gure ikastetxeetatik bullyinga desagertarazteko borrokan. Izan ere, borroka hori ezin da sindikalista burugogor edo irakasle kementsu batzuen asmo eroa. Eusko Jaurlaritzako eta Nafarroako Gobernuako Hezkuntza Sailek beraiek zuzendu behar dute bullyingari aurre egiteko borroka antolatua ikastetxe guztietan, hala publiko nola pribatuetan. Horretarako beharrezkoak diren baliabideak erabili beharko dituzte.

- ? Irakasleek eta gurasoek prestakuntza jaso behar dute, Bullyinga zer den, nola antzeman daitekeen eta nola aurre egin ahal zaion ezagutzeko. Eta ez da nahikoa izango ikastaro bakan batzuk ikastetxeetatik urrun eskantzea. Ikastetxeetan bertan eman behar da prestakuntza hori.
- ? Ikastetxe bakoitzean helduen presentzia ahulena den esparru eta denbora tarteak zeintzuk diren aztertu behar da, leku eta tarte horietan gertatzen baitira ikasleen arteko eraso gehienak.
- ? Azterketa horren emaitzen arabera, helduen presentzia areagotu egin beharko da leku eta tarte horietan, eta horretarako begirale gehiago jarri beharko dira atsedenaldi eta jantoki orduetan, zaintzaileak jarri bigarren hezkuntzako autobusetan, e.a.

- ? Biktimei laguntza emateko eta ikasleen artean gertatzen diren jazarpen egoeren salaketa egiteko dohako telefonoak sortu behar dira.
- ? Ikastetxe guztietan bullyingaren eragina neurtzeko azterketak egin behar dira, horretarako José M^a Avilesek proposatzen dituen galdetegiak erabiliz. Eta emaitzen arabera, dagozkien neurriak hartu.
- ? Biktima zein erasotzaileei behar duten tratamendua emateko adituak egon behar dira ikastetxeen esku. Gazteak, oso gazteak direla kontutan hartu behar ditugu, eta ezin dute bizitza osoa rol horietan eman. Aldatzeko aukera merezi dute.
- ? Hezkuntza arloko erronka nagusia ikusleen jarrera aldatzea da. Erasoen aurrean itsuarena egiten duen gehiengo horren jarrera aldatu behar dugu, ahulenen alde ager daitezten.

Hori guztia seriotasunez egin behar da. Ezin dugu bapatean bullying leku eta jokaera guztietan antzeman. Halaber, beste komunitate batzuetan egon diren esperientzia onak eta akatsak ere kontutan hartu behar ditugu aurrera egin nahi badugu. Horregatik eskatu diogu berriro bere laguntza José M^a Avilési, urte asko eman baititu egoera hauek ikertzen eta baita irtenbideak bilatzen ere.

STEE-EILASek, Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Sailei eskaera horiek egiteaz gain, zera ere egingo dugu:

- ? Hitzaldiak emango ditugu eskatzen diguten ikastetxe guztietan.
- ? Ikastetxeek hartzen dituzten ekimen guztiak batestuko ditugu.
- ? 2003an argitaratu genuen eta Euskal Herriko ikastetxe guztietara bidali genuen José M^a Avilésen liburua gure web orrian eskaintzen jarraituko dugu, hala euskaraz nola gaztelaniaz. Bertan bullyinga zer den azaltzen da, ikastetxean bullyingaren eragina ezagutzeko ikasle, irakasle eta gurasoei egiteko galdetegiak agertzen dira, ikastetxean bullyingari aurre egiteko plangintza eratzeko gomendioak eta, azkenik, agertzen diren kasuen tratamendurako iradokizunak ere agertzen dira.

http://www.stee-eilas.org/lan_osasuna/gaiak/Bullying/BullyingEUSK.htm
http://www.stee-eilas.org/lan_osasuna/gaiak/Bullying/BullyingCAST.htm

Donostia-Iruñea, 2004ko urriak 5
STEE-EILASeko Lan Osasun Arloa

